



Kirol-istripuetarako arreta-zerbitzu berria federatuentzat

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA
ETA
SUIBROKER ASEGURU ARTEKARITZA



Arreta Zerbitzu berria

Euskadiko Federazioak eta "Suibroker" aseguru-artekaritzak "Asesoramiento Médico Siglo XXI" zerbitzua aurkezten dizuete, federatuei arreta emateko zerbitzu berria.

Aldi berean, zerbitzu hau gure ezbeharren kontrol ZEHATZAGOA eta zorrotzagoa egiteko tresna egokia izango delakoan gaude.

Harrera telfn. Zenbakia:
926406442.



Ohiko galderak

Zer da zerbitzu hau?

- Sistema honekin guztiz aldatzen da parteak kudeatzeko modua. **Federatuek telefono-zenbaki batera deitu beharko dute partea betetzeko**. Behin hori eginda, mediku-zerbitzuak gertuen duten zentrora bidaliko ditu. Enpresaren eginbeharrak dira jarraipena egitea, saioak onartzea, proba diagnostikoak...
 - **Enpresa:** Asesoramiento Médico Siglo XXI.
 - **Kokapena:** Euskal Herritik kanpo.
- Honen bidez, federatua noiz dagoen bajaran eta noiz altan jakingo dugu. Gainera, parteak betetzerakoan behar ditugun datu guztiak galdetuko dizkigute, ikerketa zehatzagoa egin ahal izateko.

Ohiko galderak

Zertarako balio du ?

- Alde batetik, federatuentzat errazagoa izango da izapideak egitea, eta, bestetik, zerbitzuak betearazi egiten ditu Federazioaren eta klubaren artean adostutako neurriak ezbehar-kopurua kontrolatzeko eta murrizteko (adibidez, "medikuntza-bajak").
- Gure kirol-eremuko lesioen azterketa eta kontrola egiteko aukera ematen digu.

Aurreko zerbitzuarekin konparatuta, zer abantaila ditu?

- **Erosoagoa federatuarentzat**
Zentro medikoen kokapena:
Gure klubak dituzten herri guztietan zentro bat dago gutxienez, eta inguruko herrien arabera, gutxienez bi.
- **Arreta-zerbitzu zabalagoa**
Telefonoz emango da arreta, goizeko zortzietatik (08:00) gauerdira (24:00) arte.

Ohiko galderak

Federatuarentzat garestiagoa da?

- Ez, ez du inolako kosturik.

Eta klubentzat edo Federazioarentzat?

- Ezta ere.

Noiz hasiko da ?

- **Urtarrilak 1 etik aurrera.**

Eta zer gertatuko da orain arteko parteekin?

- Dauden bezala jarraituko dute, eta orain arte eman zaien arreta berdina jasoko dute.

Harrera telfn. Zenbakia:
926406442.



Ohiko galderak

Zein izango da "Suibroker" artekaritzaren zeregina, beraz?

- Hemendik aurrera, gure zeregina benetako bitartekaritza-lana egitea izango da. Batetik, enpresak tratamenduren bat emateko zalantza duenean, guk erabakiko dugu egin behar den ala ez. Urtero zaildu ohi diren parte horietan ere, gure lanak hobe izan beharko luke.
- Hala ere, federatuek dei egin diezagukete beti. Guk tratamendu eta parte guztien jarraipena egingo dugu, eta, horrenbestez, informazio guztia izango dugu.

